



CONCEPT



#BILBAO
COMMONS
SANTUTXU 2017

Kolektibo egoiliarra Azkuna Zentroan

 **inteligencias
colectivas**

CONCEPT

iC/AZ
BILBO COMMONS

CONCEPT

TEMA

ADIMEN KOLEKTIBOA

iC/AZ

BILBO COMMONS

 **inteligencias
colectivas**

ADIMEN KOLEKTIBOA

“Adimen kolektiboa, normalean espezie berdinekoak diren gizabanko askoren kolaborazio eta parte-hartzearen ondorioz ematen den adimena da. Gaur egun ziberkulturako edo ezaguera gizarteko termino orokorra da. Adostutako erabaki-hartze aldaera zabal batean ematen da bakterioa, abere, gizaki eta ordenagailuetan.” (...)

“George Pór-ek fenomeno horrela definitu zuen: giza komunitateek, konplexutasun eta armonia handiagoko orden baterantz eboluzionatzeko dute ahalmena, bai berrikuntza-mekanismo, bereizkuntza eta integrazio, zein konpetentzia eta kolaborazioaren bidez .”

*WIKIPEDIA-TIK EUSKARATUA:

[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/INTELIGENCIA_COLECTIVA](https://es.wikipedia.org/wiki/Inteligencia_colectiva)



CONCEPT

TEMA

HIRI ADIMEN KOLEKTIBOAK

iC/AZ

BILBO COMMONS

 **inteligencias
colectivas**

HIRI ADIMEN KOLEKTIBOAK

- + Entitate eta baliabide material zein ukiezinak dira.
- + Kolektiboki sortuak eta/edo garatuak izan dira; askotan prokomunetara lotuak daude baina badaude ere prokomun batekin lotzen ez diren Hiri Adimen Kolektibo publiko eta/edo pribatuak (politika publikoak, erakunde pribatuak, etab.)
- + Haietako askok ezaguera-tipo desberdinak hibridatzen dituzte eta testuinguruarekin beti lotzen dira nolabait: ikasten dute edo baldintza lokaletara moldatzen dira.
- + Ikasten dute, eboluzionatzen dute eta era ireki eta libreki moldatu daitezke; hortaz kode irekidun baliabideak dira.
- + Hiri-baliabideen kudeaketa eraginkorra baimentzen dute, hauek era zabalean ulertuta (naturalak, gizakiak, etab.)
- + Gehienetan, irizpide praktiko zein etikoekin zuzenduak diren, behetik - gorako prozesu antolatzaile kolektiboak barnean hartuz garatzen dira.
- + Haietako askok kolektiboaren ezaugarri antolatzaileak eta sareak aprobetxatzen dituzte.

*INTELIGENCIAS COLECTIVAS BILBAO COMMONS LAN TALDEAK SORTURIKO
TESTUA



CONCEPT

TEMA

JAKINDURIA TALDEKOIA

iC/AZ

BILBO COMMONS

 **inteligencias
colectivas**

JAKINDURIA TALDEKOIA

“Jakinduria Taldekoa: Zergatik askok, gutxi batzuk baino adimentsuagoak dira eta nola jakinduria kolektiboak, negozio, ekonomia, gizarte eta estatuei forma ematen die, lehen aldiz 2004an argitaratutako eta James Surowiecki-k idatzitako liburua da. Taldeetan guztien artean sortzen den informazioari buruz hitz egiten du eta berak argumentatzen duen arabera, informazio multzo honek ematen duen emaitza, askotan taldeko kide bakar batek hartuko zuen erabakia baino askoz hobea izaten da. Liburuan, aztertuak izan diren kasu eta anekdota ugari aurkezten ditu bere argudioa argitzeko, jakintza arlo ezberdinak arakatzuz, bate zere ekonomia eta psikologia. (...)

Masa jakitun bat eratzeko beharrezko diren lau elementuak: Masa guztiak (taldeak) ez dira jakitsuak. Kontuan har itzazu, adibidez, merkatu-burbuila batean zoratutako jendetza edo inbertitzaileak. Zein da masa jakitsuak irrazionalak diren haietatik bereizten dituen irizpide giltza?

+ Iritzi - aniztasuna: pertsona bakoitzak iritzi pertsonala eduki beharko luke, ezagunak diren gertaeren interpretazio bitxi bat baldin bada ere.

+ Independentzia: inguratzen dituztenen iritziek ez lituzkete jendearen iritzia zehaztu behar izango.

+ Deszentralizazioa: jendeak espezializatu ahal beharko zen eta ezagupen lokalez baliatu.

+ Multzoa: badaude mekanismoak iritzi pertsonalak erabaki kolektiboak bihurtzeko.

***WIKIPEDIA-TIK EUSKARATUA:**

[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/SABIUR%. \(3%. ADA _DE_ LOS _GRUPOS](https://es.wikipedia.org/wiki/SabiDUR%20(3%20ADA_DE_LOS_GRUPOS)

CONCEPT

iC/AZ

CONCEPT

TEMA

INSTANT CITY
PROIEKTUA, 1969

iC/AZ

BILBO COMMONS

© inteligencias
colectivas

INSTANT CITY PROIEKTUA, 1969

“The Instant City (1969), Joana Mayer-ek 1950 urtean proposatutako proiektu bat da. Aurrerapen teknologikoez baliatuz, area periferikoetara hiri handietako aukera kulturalak ekarriko zituzten azpiegiturak proposatu zituen. Hirien garapen handiak erreakzio bikoitza sortzen du herrietan edo nukleo txikiagoetan: bere tradizio kulturalen babeseta eta hiriko biztanleekiko gutxiagotasun sentimendua.

Hirien garapenkeria bat batekoiak, herri edota nukleo txikiagoetan bi motariko erreakzioak sortarazten ditu, area bakoitzeko baliabide kulturelekin loturak ezartzea bilatzen zuen ekitaldia ezberdinak aurrera eramanez, periferia hauetan denboraldi baterako foku kultural bat sortuz eta kokapen bakoitzeko ekimen egonkorrak sustatuz. Modu honetan sare kultural zabal bat sortuko zuen, izandun hiriko toki espezifikoetan globo handi batzuk kokatuz.

Jhoana Mayer-ek erabiltzaileen lankidetzeta eta sormena sustatu nahi zuen, hauen nagitasuna mentala kentzera behartuz. Arkitektura nomadaren ideia hau, bidaiatzen du eta ezartzen den lurraldeetan zabaltzen da. Hartzen dituen komunitateetan, ekipamenduak eta beharrezko giroa sortu ahal izango da hau jasan ahal izango duten makro-azpiegiturretaz baliatuz. “Hiria” egiteko modu libre eta pertsonalizatu bat da; mugikortasuna, kontsumoa, autonomia teknikoa eta erabiltzailearen ahalmenak, oinarrizko ezaugarriak dira kontsumo objektuen produkzioaren onarpenetik. Gainera, periferiak edo hiri txikiak bere barne sartzean, hauen “metropolizazioa” ahalbidetzen da eta gertaeraren hizkuntzara hurbiltzen dituen, informazio, hezkuntza eta aisi-sareak sortuz.

*”ARCHIGRAM: SICODELIA ARQUITECTÓNICA”-TIK HARTUA:
[HTTPS://J3STUDIO.COM/ARCHIGRAM-SICODELIA-ARQUITECTONICA/](https://j3studio.com/archigram-sicodelia-arquitectonica/)

CONCEPT
iC/AZ

CONCEPT

TEMA

**INSTANT CITY
ADIERAZPENA, 1971**

iC/AZ

BILBO COMMONS

ic inteligencias
colectivas

INSTANT CITY ADIERAZPENA, 1971

Kultura Berriaren balioetako bat, aldaketa bera da; doigarritasuna eta aldagarritasuna. "Trip"-a da balio honen irudi bezala. Bizitza, indarreko kulturak, eskaintzen duen bizitzaren progresio lineala bezala ez ulertzea (haurtzaroa, ezkontza, lanbidea, boterea, aberastasuna, familia, erretiroa), aldez aurretik pentsatu gabe sartu eta atera gaitezken bidai multzoa bezala baizik. Bizitza asko bizi daitezke edo eguneko itzulia laurogei mundutan gerta daiteke. (...)

Diseinua portaerak gauzatzen dituen asmaketa da. Prozesua forma da. Prozesua aldakorra da baina forma aldakorra ez den materialian egiten da: hezurdurak, prozesua den animalia bizia kartzelaratzeko du. Etorkizunerako diseinuaren arazo nagusietako bat, prozesu bat era mugagabe gauzatu dezaketen forma aldagarriak asmatzea da, espontaneo eta ustekabekoak diren aldaketak baimenduz. Bizi-prozesuak, existitzen den konplexuena, forma aldakorren asmakizuna behar du. Bat-bateko hiria, gure belaunaldiari aurkezten zaion diseinu arazorik zirrargarriena da. Toki sakratu batetan agertu eta alde egiten duten azken kotxeekin urtu egiten den nomadentzako hiria. Biztanleen "trip"-en arabera aldatzen doan sedentarioentzako hiria. (...)

Mundu osoko diseinatzaileei eskatzen diegu, egun hauetan gure buruek sortuko duten bat-bateko hiria, fisikoki sortzera lagundu diezagula. Ingurune diseinu happening batetan, portaera eta forma bateratu daitezke, diseinu, eraikuntza, musika, mimo, feria, jaialdi eta inprobisazio aste batetan zehar.

AGRUPACIÓ DE DISSENY INDUSTRIAL DEL FOMENT DE LES ARTS DECORATIVES
[HTTP://WWW.MACBA.CAT/PDFS/INSTANT%20CITY_MANIFEST.PDF](http://www.macba.cat/pdfs/instant%20city_manifest.pdf)

CONCEPT
iC/AZ

CONCEPT

TEMA

P2P URBANISM

iC/AZ

BILBO COMMONS

© inteligencias
colectivas

P2P HIRIGINTZA

P2P hirigintza, funtsezko bost oinarritan oinarrituriko hiria ulertzeko, eraikitzeko eta konpontzeko modu berritzailea da.

1) P2P urbanismoak, bizitzeko lekua aukeratzeko oinarritzko giza-eskubidea babesten du. Aukera anitzen artean ematen den banakoaren aukerak, gure beharrekin bat etortzen den hiri trinko eta iraunkorra sortzen du.

2) Hiritar guztiek bere inguruneari buruzko informazioari, erabakitze-prozesuetan parte hartu ahal izateko. KIT-ei (Komunikazio eta Informazio Teknologiak) esker hau posiblea da eta aktiboki mantentzea ahalbidetzen dute.

3) Erabiltzaileek euren kabuz parte hartu behar dute elkar-diseinuaren maila eta arlo guztietan, eta kasu batzuetan berauen hiriak eraiki ere. Beraiek, gobernuarekin eta eraikuntza sustatzaileekin batera, hiri ingurugiroan gauzatzen diren edozein motariko aldaketen interesen aldeko ekintzaile gisa ulertu beharko litzaizteke.

4) P2P hirigintza arloko profesionalak hiriaren sarean ugaltzeko diran kode irekidun jakituria, teoremak, teknologiak edota praktikak eratzeko eta zabaltzeko konpromezua hartuko dute, giza eskala jorratuz eta pertsona ororentzako hedagarriak, eskuragarriak, berrikusgarriak eta erabilgarriak izanik.

5) Eraikiriko espazioen erabiltzaileek, hirigintza tresna sofistikatu modura hornitzen daben jakituriadun, trebetasundun eta jardunbidedun biltegi bilakagarriak eratzeko eskubidea dute.

***"A DEFINITION OF P2P URBANISM" IOAZKITIK + WIKIPEDIA-TIK EUSKARATUA
[HTTPS://WIKI.P2PFOUNDATION.NET/FILE:P2PURBANISM_DEFINITION.PDF](https://wiki.p2pfoundation.net/File:P2PURBANISM_DEFINITION.PDF)**



CONCEPT

TEMA

DISEINU PARTE HARTZAILEA

iC/AZ

BILBO COMMONS

 **inteligencias
colectivas**

DISEINU PARTE HARTZAILEA

Diseinu parte hartzailea (lehenago “Diseinu kooperatiko” deritzona) interesdun eragile guztiak (langileak, kideak, bezeroak, hiritarrak, erabiltzaileak) diseinu prozesuan aktiboki tratatzen duen diseinu ikuspuntua da. Bere xede nagusia diseinatzen den produktua beharrianetara lotzen dela eta erabilgarria dela bermatzea da. Diseinu parte hartzailea berau prozedura bat da, kolektiboki elkarlankidetzan, informazio hanpaketan, ikaskuntzan eta adospenean datzan jardunbidea, alegia.

Hitz molde hau hainbat esparru desberdinetan erabiltzen da, erabiltzaileentzako, biztanleentzako eta beharrian kulturalen, sentikorren, izpiritualen edota praktikoen kontsumitzaileentzako, ingurugiro sentikorrakoak eta egokiagoak sortzeko helburuarekin: software diseinuan, hirigintza diseinuan, arkitekturan, paisaiagintza arkitektonikoan, ongien diseinuan, jasangarritasunean, diseinu grafikoan, hirigintza kudeaketan edota medikuntzan baita ere. Diseinu parte hartzailea, beraz, jardunbideetan eta diseinu prozeduretan oinarritzen eta fokatzen den praktika da, eta ez diseinatzeke estilo soil bat ordea (...)

Diseinu parte hartzailearen partaideak (ustezkoak, balizkoak eta etorkizunekoak) diseinatzaileekin, ikertzaileekin eta garatzaileekin elkarlanean berrikuntza prozesuan aritzeko gonbita egiten zaie. Prozedurako balizko hainbat fase berriztatzailetan hartuko dute parte: mihaketa atalean edota hasierako arazoaren bilaketan izango dira partaide, arazoaren definizioan arituko dira eta baita ere berauen ebazpenerako beharrezkoak diren hartuemonen kudeaketan; garapenerako arloan, aldiz, ebazpenerako prozeduren ebaluaketak gauzatu eta lagundu egingo dute.

*WIKIPEDIA-TIK EUSKARATUA:

[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/DISE% \(3% B10_PARTICIPATIVO](https://es.wikipedia.org/wiki/Dise%C3%B1o_participativo)



CONCEPT

TEMA

“URBAN
COMMONS”-EN
ZAINTZARAKO ETA
BIRGAITZERAKO
BOLOGNA-KO HIRI
ERREGELAMENDUA

iC/AZ

BILBO COMMONS

 **inteligencias
colectivas**

“URBAN COMMONS”-EN ZAINTZARAKO ETA BIRGAITZERAKO BOLOGNA-KO HIRI ERREGELAMENDUA

Hiria ez da baliabide multzo batez hornituriko errealitate kudeagarri, politizagarri edota burokratizatu modura sinplifikatu nahi. horren ordez, Boloniako Hiri Erregelamenduak hiriko herritargoa ekintzaile irudimentsu eta burutsutzat joko du, berebiziko eskubide modura. Biztanleriaren parte-hartzea eta elkar-lankidetzaren energia zoli eta halaberharrez aitortzen dira eta berauek lan espazioz hornitzen dira, gobernantza eta kudeaketa tresna egokiz lagunduz. Honela, gobernantza azpiegitura berrien oinarriak jartzen dira, komunitate burujabe anitzen arteko gehikuntzaz osaturiko kudeaketa eredu berriztatzaile modura ulertuz.

Gaurko datararte, Boloniako udalaren eta herritargoaren artean 90 “elkarlankidetzaren itun” desberdin baino gehiago gauzatu egin dira; berauek legeztatutako kontratazio formalak dira, alegia, hiriaren gobernariaren eta hiritarren artean proiektu anitzen irismena, proiektuaren nondik-norakoak eta ekintzaile eta eragile ororen betebeharrak eta zereginak zehazten dituzten itunak. Hiru arlo orokorretan banatzen dira proiektuak: elkarbizitza, hazkunde elkarbanatua eta lankidetzaren elkarbanatua. Lehenengo fasean gauzaturiko proiektuaren artean, pasa den urtean, gurasoek kudeaturiko haurtzaindegia bat, “gizartekale” ekimen bat eta hiri-baratze proiektu bat azpimarratu daitezke. Hurrengo urtean, bigarren fasean, beste saiakuntza proiektu batzuk gauzatu dira hiri erregelamenduaren ordenua egitearren.

*DE WIKIPEDIA: [HTTP://WIKI.P2PFUNDATION.NET/BOLOGNA_REGULATION_FOR_THE_CARE_AND_REGENERATION_OF_URBAN_COMMONS](http://wiki.p2pfoundation.net/Bologna_Regulation_for_the_Care_and_Regeneration_of_Urban_Commons)

CONCEPT

IC/AZ

CONCEPT

TEMA

ESPAZIO
PUBLIKOEN
KUDEAKETA
ELKARBANATUA
(BOLONIA URBAN
COMMONS)

iC/AZ

BILBO COMMONS

 **inteligencias
colectivas**

ESPAZIO PUBLIKOEN KUDEAKETA ELKARBANATUA (BOLONIA URBAN COMMONS)

- 1) Elkarlankidetzaren helburua espazio publiko baten kudeaketa elkarbanatua eskatzea/edukitzea izan daiteke.
- 2) Legez aktiboa eta hiritargoak espazio baten legezko zaintza eta kudeaketa izango du aurretik zehazturiko denbora tarte batez, itunaren bitartez hitzemandako ekitaldiak eta jarduerak gauzatzeko xedearekin.
- 3) Legez aktiboa eta hiritargoak ezin izango ditu elkarbanaturiko espazioen aurka dauden jarduerak zein ekimenak gauzatu.
- 4) Ongi baten kudeaketa elkarbanatuaren bermea legez aktiboa eta hiritargoaren aniztasunaren arabera izanen da. Boloniako udalak espazio baten eskumena esleituko du baldin eta espazio horretako jabegoaren %66-ak baino gehiagok parte hartzen badu itunaren sinaduran.
- 5) Berdeguneak eratzeko espazioak lehentasuna izango dabe itunen esleipena egiterako orduan.

[HTTP://WWW.COMUNE.BOLOGNA.IT/MEDIA/FILES/BOLOGNAREGULATION.PDF](http://www.comune.bologna.it/media/files/bolognaregulation.pdf)



CONCEPT

TEMA

TAZ -
BEHIN-BEHINEKO
AUTONOMIA
EREMUAK

iC/AZ

BILBO COMMONS

© inteligencias
colectivas

TAZ - BEHIN-BEHINEKO AUTONOMIA EREMUAK

“Behin-behineko autonomia-eremuak’ angaleratik eratorriko “Temporary Autonomous Zone” ensaioa da, 1991 urtean Hakim Bey-ren eskutik plazaraturiko argitalpena. Bertan gizarte-kontrol egitura formaletatik at geratzen diren behin behineko espazioen sorkuntzan datzaen saiakuntza sozio-politiko ez mintzatzen da.”

“TAZ eguneroko bizitzaren hanpaketa defendatzen dauan heinean, zentzu batean utopia bat dala esan daiteke; edota surrealisten esango luketen arabera: magia eguneroko bizitzan txertatzea dala. (...) TAZ-a leku bat da eta leku batean dago, beti. Indarren arteko elkargune batean kokatzen da beti, nolabaiteko indar erdigune jentil batean; gidalerro kosmiko misteriosuen erdibidean; beraien jarraitzaileen eskutik lursail, paisaia, aire fluxu, ur zein animalietan ikusgai izanik. Orain ordea, gidalerroak ez dira espazio-denboran marraturik azaltzen. Batzuk, bestalde, Web sarean baino ez dira agertzen, nahiz eta benetako denbora eta tokiekin elkar gurutzatzen diren. Baliteke horietariko lerro anitz ezohikoak izatea, inolako konbentzioren eskutik kalifikaezinak izanik. Kaosaren teoremaren bitartez hobeto azaldu litezkean gidalerroak dira, soziologia, estatistika zein ekonomia erabiliz baino.”

*https://es.wikipedia.org/wiki/Zona_Aut%C3%B3noma_Temporal
*ZONA TEMPORALMENTE AUTÓNOMA, HAKIM BEY, EQUINOCIO DE PRIMAVERA, 1990

CONCEPT
iC/AZ

CONCEPT

TEMA

Hiri AKUPUNTURA

iC/AZ

BILBO COMMONS

© inteligencias
colectivas

ACUPUNTURA URBANA

“Hiri akupuntura hirigintza ekologia teorema bat da, non hiri diseinua eta medikuntza teorema tradizional txinatarra elkar uztartu egiten diran. Estrategia honek hiriak arnasa hartzen duen izaki bizidun baten bezala aztertzean datza, eta konpondu beharreko arlo eta toki zehatzak adierazten ditu. Proiektu jasagarriak, beraz, hiriaren osotasunaren biziberritzea eragingo dabe tokian tokiko osagile lana egiten daben orratz gisa lan eginez. Hiri izaki bizidun gisa hautematearen ondorioz, hiri akupunturak amankomuneko makineria bat sustatzen du, aldi berean nukleo zehatz batzuk mugatuz; akupuntura tradizionalak giza gorputzean bilatzen dituen gako-puntuen antzera lan egiten dabenak. Sateliteen teoremak, saregintza prozedurak eta adimen kolektiboaren teoremak erabiltzen dira, lan kirurgiko eta tokian tokiko birgaitze lan potentzial nodalak eragiteko.”

*WIKIPEDIA-TIK EUSKARATUA:

[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/ACUPUNTURA_URBANA](https://es.wikipedia.org/wiki/ACUPUNTURA_URBANA)



CONCEPT

TEMA

HIRIGINTZA TAKTIKOA

iC/AZ

BILBO COMMONS

 **inteligencias
colectivas**

HIRIGINTZA TAKTIKOA

Hirigintza Taktikoa ingurugiro eraiki batean jasotako kostu txikiko eta aldi baterako egindako aldaketa sortak deskribatzeko erabiltzen dan hitz molde zabala da. Hiri ingurugiroan eratu ohi dira, tokiko auzotegiak edota degradaturiko hiri espazio amankomunak hobetzeko xedearekin. Hirigintza Taktikoaren kontzeptua, maiz ere “hiri gerrilla”, “pop-up” hirigintza, “hiri-brikolaia” edota DIY-hirigintza hitz moldeekin adierazten da. “Street Plan Collective” elkarlankidetzak erakundeak hurrengo bost oinarrietan datzaen aldaketaren hirigintza lanekin definitzen dute Hirigintza Taktikoaren kontzeptua:

- + nahitaz sorturiko ikuspuntua eta maila desberdinetan garaturiko aldaketa jarraitua
- + tokian-tokiko hirigintzak dakartzan erronkei aurre egiteko tokian-tokiko irtenbidea eskeini
- + epe laburreko engaiamentua eta itxaropen errealistak arrisku txikia eta golardo handia
- + herritargoaren, erakunde publiko zein pribatuen, irabazi asmo gabeko erakundeen eta beraien kideen arteko antolakuntza gaitasunaren eraikuntzaren artean gizarte ekoizpen garapenaren bultzada eragitea

*DE WIKIPEDIA

[HTTPS://EN.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/TACTICAL_URBANISM](https://en.wikipedia.org/wiki/Tactical_Urbanism)

CONCEPT
iC/AZ

CONCEPT

TEMA

HIRIAK EDUKITZEKO ESKUBIDEA

iC/AZ

BILBO COMMONS

 **inteligencias
colectivas**

HIRIAK EDUKITZEKO ESKUBIDEA

“Beraz, hiria artelan bat izatetik gertuago dagoen egintza da, produktu material gordin bat izatetik baino. Hirian ekoizpenink edota gizabanakoen arteko erlaziorik gertatu ezkerro, objetuen arteko ekoizpenak ez ezik, berauek gizabanakoen eskutik emandako gizabanakoen arteko elcarsorkuntzak eta birsorkuntzak baino ez dira. Hiriek, bestalde, istorio bat eduki ohi dute, istorio batek ekoitziak izan dira, hots, baldintza historiko zehatz batean kokaturiko gizabanako eta talde oso zehaztu batzuek sorturiko egintzak dira. Baldintza historiko hauek, aldi berean aukera anitzak ahalbidetu zein baldintzatu egiten dituzten heinean; euren baitan, euren gandik zein euren gaitik sortutako istorioak azaltzeko ez dira nahikoak izaten. (...)

“Ekoizpen” hitz moldea zentzu zabal batean onetsi ezkerro (ongien, eginkizunen edota giza harremanen ekoizpena), historian zehar hirien ekoizpen fenomenoaren eman zela adierazi daiteke hain zuzen ere, jakituriaren, kulturaren, artelanen eta gizaldien ekoizpena gertatu zen heinean, eta noski, ongi materialen eta objektu praktiko-sentikorren ekoizpena gertatu zen antzera ere. (...) Hiria egintza bat izaten jarraitzen dau, hori ere izan bait da betidanik, baina ez da gai maneigarri baten moduko egintza soil bat, ez da arkatz baten edota paper zati baten, tresna baten gisakoa. Bere objetibotasunak edota objektutasunak hizkuntzaren (hizkuntza zehatz bat, gizarte jakin batek garaturiko hizkuntza bat edota gizabanakoen talde batek erabiltzen duten hizkuntza bat) edota bertako norbanakoek edota taldeek jasotzen duten hizkuntzaren antza gehiago dauka. Objektutasun horren ildotik, testuinguru kultural batekin ere alderatu geinke hiria, eskuidatzi bati alegia, iraganeko filosofoek emandako abstraktutasun kutsutik edota gaur egungo objektuek daukaten berehalakotasunetik eta egunerokotasunetik aldentuz.

***“EL DERECHO A LA CIUDAD”-TIK HARTUA, HENRI LEFEBVRE, 1968**

CONCEPT
iC/AZ

CONCEPT

TEMA

GARAPEN BIDEAN DAUDEN SISTEMAK

iC/AZ

BILBO COMMONS

© inteligencias
colectivas

GARAPEN BIDEAN DAUDEN SISTEMAK

Garapen bidean dauden sistemak azaleratzen ari diren portaera berriztatzaileak hedatzen duten egokitzapenerako sistema konplexuak dira. Arazo desberdinak itxuraz behintzat eta bat-batekotasunez konpontzeagatik bereizten dira; hau da, ohiko adimen zentralizatueta eta hierarkizatueta (goitik-beheranzkoeta) jo gabe. Hain zuzen ere goranzko mugimenduz baliatzen dira, oinarrietatik gorantza joanez, elementu ez adimendun multzoengandik habiatuak. Eragile bakoitzaren itxurazko jokabide bakandua, bereizia, maila gorenagoko erakunde baten berebiziko jokabide taldekoa ekoizteko gai izango da eskalaz handituz ezkerre, nahiz eta gorenetik datozen aginpide baten antolakuntza legeen, arauen edo mailen itxurazko gabezia egon.

Zientzialariak auto antolakuntza sistema honen adibide anitz, askok elkarren arteko izugarritzko antzarekin, ari dira ikertzen XX mende amaieratik, natur zientzen edota gizarte zientzien alorretik batik batik: Evelyn Fox Keller-ek eta Lee Segel-ek (Alan Turing-en ardatzen ildoan jarraitzaile diran bio-matematikariak) ikerturiko lohietako lizun koloniak (*Dictyostelium discoideum*), Jane Jacobsen-en eskutik ikerturiko auzuneak edota Marvin Minsky-k ikerturiko gizakion burmuineko sareak sistema, besteak beste. Berriki sorturiko software-a edota sare sozialak, ere bai, eredu berberak jarraituz garatu ziran. Guzti hauek Steven Johnsonen liburuan agertzen dira aipaturik, 2001 urtetik aurrera kontzeptuaren onarpena nabarmenduz. (Garapen bidean dauden sistemak. Edota Zer daukate amankomunean txindurriek, neuronek, hiriek eta software-ak)

*WIKIPEDIA-TIK EUSKARATUA:

[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/SISTEMA_EMERGENTE](https://es.wikipedia.org/wiki/Sistema_emergente)

CONCEPT
iC/AZ

CONCEPT

TEMA

KALEBEGIAK

iC/AZ

BILBO COMMONS

© inteligencias
colectivas

KALEBEGIAK

“Kaleak eta espaloiak dira, hiri baten leku publiko nagusiak, bere bizi-organoak, alegia. Zer da gure burura jatorkigun lehen gauza hiri batean pentsatzen dugunean? Bere kaleetan, hain zuzen ere. Kaleek intesezko irudia eskaintzen dutenean, hiri osoan islatzen da interes hori; aldiz, irudi begiluna igortzen baitabe, hiri osoan islatuko da ere. “ (...)

“Erabiltzen den kale bat segurua izateko aukera gehiago dauzka erabiltzen ez dan kale batekin alderatuz (...) Beti egon behar dira kaleak begiratzen dabezan begiak, alegia, kale horien berezko jabetzat hartzen diran pertsonen begiak, hain zuzen ere (...) Kaleetako segurtasuna handiagoa, lasaiagoa eta liskar kutsu urriagoa izango dabe, hain zuzen ere, gehiago erabiltzen diren eta borondatez ustiatzen diren kaleetan, eta era berean, oro har zelaturik dagozelaren susmo edota jakitun ez diranean ere.

“Hiri batetako kaleekiko konfiantza denporarekin eraikitzen dan egoera bat da, espaloietan gertatzen diren gizabanakoen arteko kontatu anitz eta txiki askoren bitartez... horietariko asko nabarmenki azalekoak eta hutsalak dira, baina euren arteko baturek ez dira inolaz ere garrantzia gabekoak.”

“Inork ere ez dau kale huts batetako kaleaulki batean jartzeaz gozatzen, edota lehio batetik ikusten dan kale huts bat begiratzeaz olgatzen. Uste dot inork ere ez duela horrelakorik egiten. Baina badira nortzuk kale batetako mugimendua eta bizitza begiratzeaz jostatzen direnak, orain eta gero, lehio batetik edota espaloietik bertatik.”

*JACOBS, JANE (1961). THE DEATH AND LIFE OF GREAT AMERICAN CITIES-TIK HARTUA ETA EUSKARATUA (RANDOM HOUSE, INC., NEW YORK)



CONCEPT

TEMA

UTOPIEN FUNTZIOAK

iC/AZ

BILBO COMMONS

 **inteligencias
colectivas**

UTOPIEN FUNTZIOAK

“Utopia (grezieratik: u «ez» + topia «lekua», hots, «leku irreal», «inon ez dagoena» edo «existitzen ez den lekua») Tomas Morok sorturiko neologismoa da. Hizkera metaforiko eta arruntean, lortu nahi baina ezin dena adierazten du, hau da, «errealiterik gabea» esan nahi du.”

“Utopia gizakiaren oinarrizko gertaera antropologikoa da filosofiaren ustez, bere askatasunaren funtsezko osagaia alegia. Utopiaren oinarria egokituriko gizartea gogoko ez izatean datza, honen aurrean gizakiak gustuko izango duen gizarte bat sortzen baitu. Ondorioz utopia aldaketa sozialen eragile da baita ere.”

Funtzioak:

- 1) “Funtzio orientatzailea. (...) Utopia bat bere osotasunean amets harrapaezin baten lantzerara ikus daiteken arren, estatu zehatz batetako aldaketa politikoek har ditzaketen norabidearen adierazgarri eta baliagarri izan daitezke.
- 2) Funtzio aintzagarria. (...) Autore askorentzat, utopia batek ez dau horrenbeste zerbitzatzen aro berri idealak eraikitzeko, bizi garen aroa hobeto ulertzeko baizik.
- 3) Funtzio kritikoa. (...) Utopiak orainalditik lorturiko elementuz osoturik daude, bai berauek saihesteko (desberdintasunak, bidegabekeriak...) edo berauek hanpatzeko (aurrerapen teknikoak, askatasunak ...). Ondorioz, alderaketen ondoren, ageriko bidegabekerien eta desberdintasunen aurkako kritika modura tresna eraginkorrak zein zoliak dira.
- 4) Funtzio itzaropengarria. (...) aro berriagoak irudikatzearen premia gizakiarenena eta ez beste inorena den oinarrizko beharrezkoa da eta, beste alde batetik, beharrezko hau halabeharrezkoa suertatzen da.

*WIKIPEDIA-TIK EUSKARATUA:

[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/UTOP%. \(3%. ADA](https://es.wikipedia.org/wiki/UTOP%C3%ADA)



CONCEPT

TEMA

ERALDAKETARAKO ERKIDEGOAK

iC/AZ

BILBO COMMONS

 **inteligencias
colectivas**

ERALDAKETARAKO ERKIDEGOAK

“Eraldaketarako erkidegoek batasuneko herri mugimenduaren barneko proiektu eraldatzaileak dira, gizarte erresilientzia barri baten sorkuntza bilatuz, klima-aldaketak, erregai gordinen produkzioaren gorakadak eta ekonomiaren ezegonkortasunak sorturiko elkarbizitza gainbeheraren aurka ezarriz. Eraldaketarako Erkidegoak deritzon mugimenduak (eraldaketarako sare edo eraldaketarako hiriak bezala ere ezaguna), mugimendu pragmatikoa eta alderdikoitasunaren aurkakoa da, agroekologiaren, permakulturaren, tokian tokiko ekoitzitako ondasunen kontsumoaren, desazkundearen eta bizitza trebetasunak eta naturaren gainerako harmonia berreskuratzeko jarreraren aldekoa da.” (...)

“Proiektuaren helburu nagusia bizimodu jasangarria zertan datzan ezagutaraztea da, eta etorkizun hurbilean garatzeko beharrezkoak diren tokiko erresilientziak eratzea. Energiaren erabilera murrizteko eta norbanakoen burujabetza handitzeko moduak aurkitzeko elkarleen interesa bilatzen dau. Mugimenduaren leloa “Elikagaiak oinez, ez kilometroz” da. Ekimenek elikagaien hazkuntzarako baratze elkarbanatuak, hondakinen elkar-trukapenerako erakundeak eta objektuen birziklapena eta konponketa espazioak eratzean oinarritu dira hurrenez hurren.”

*WIKIPEDIA-TIK EUSKARATUA:

[HTTPS://ES.WIKIPEDIA.ORG/WIKI/COMUNIDAD_DE_TRANSICI%.\(3%.B3N](https://es.wikipedia.org/wiki/Comunidad_de_Transici%C3%B3n)

